



Komunikatu honen bidez pintxoaren hirian, Michelin izarrak dituzten 8 jatetxe dituen hirian eta Basque Culinary Center dagoen hirian, **300 pertsona baino gehiago pobrezia eta muturreko bazterkeria egoeran bizi direla jakinarazi eta salatu nahi dugu**. Pertsona hauek kalean bizirautean dute, edo, zortetik badute argirik eta urik gabeko etxeetan bizi dira, askotan higienarako aukerarik gabe eta osasun fisiko, psikologiko eta emozionala lortzeko zailtasun handiekin.

Duela 3 urte baino gehiagotik, ordea, **Kaleko Afari Solidarioak (KAS) ekimeneko boluntariook, 200 afari bero baino gehiago banatzen ditugu urteko egun guztietan** hiriko hiru puntutan. Lan hori herritar anonimoen ahalegin, diru eta elkartasunari esker egiten dugu eta gainera, behin baino gehiagotan zeregin honetan gaudelarik **poliziak bideo kamaraz grabatu gaituela ohartu gara**. Maiz, afari hauek ez dira guztiontzat iristen. Oso kezkatuta gaude hiru puntutara datozen pertsonen kopuruak gora egin duelako eta tristuraz ikusten dugu nola guk emandakoa askotan beraien eguneko otordu bakarra den, ez baitago gosaltzeko edo bazkaltzeko ia zerbitzu publikorik eta udalekoak ez diren baliabideek, haien jarduera eten edo behin behinean itxita daudelako. Alkate jauna, Donostian pintxoak jatera joatea ez ezik, afari soil batekin bizirik irautea ere asko kostatzen da.

KAS eta Hiritarron Harrera Saretik Udalak egoera honetan dauden pertsonen eskaintzen dizkien baliabideak urriak direla salatu nahi dugu:

- Donostiako Udalak dituen elikadura-prestazioen kapituluaren barruan "Otorduak" dago- pertsonen hiriko tabernetan jan ahal izateko kupoia – **65 plazako edukierarekin eta 200 lagunetik gorako itxaron-zerrendarekin**. Argi eta garbi zerbitzu hau eskusiboa da eta ez da nahikoa.
- Badakigu, halaber, gutxieneko higiena izateko, pertsona batzuek **tiket bat lortzen dutela asteen behin duxatu ahal izateko eta hilean behin garbigailu bat jarri ahal izateko**, baina eskaera hain handia denez, aste erdirako guztiak amaitu dira.
- **Udal aterpetxeak hiru hilean behin bost gau eskaintzen ditu**, baina, beti beteta egoten da eta askotan kanpoaldean lo egin behar izaten da gau guztian zehar, goizean leku bat lortu ahal izateko.
- **Larrialdietarako udal zerbitzua (SMUS)**- besteak beste errolda lortzeko jarraipena egin behar duena- **erabat gainezka dago**, jende asko egoten da kanpoan zain, zaila da hitzordua lortzea eta lortzen denean 15 minutuz bakarrik artatzen zaituzte. Gainera, SMUSen bitartez lortzen ziren baliabide apurrak murriztuz eta kenduz joan dira, dokumentazioa lortzeko dirulaguntzak esaterako, aldi berean errolda lortzeko beharrezkoa ere badena.

Nahiz eta egoera babesgabe horretan dauden pertsona gehienak Afrikako iparraldetik migratutako gazteak izan, erabateko segurtasunik gabe bizi direnak egunero otordu bakar bat ere bermatuta izan gabe, nabarmendu nahi dugu **gero eta pertsona gehiagok egiten dutela gaua kalean, horien artean emakumeak eta baita familiak ere**. SMUSEk ere ez die inolako aukerarik eskaintzen azken hauei.

Nola suposatzen da biziraun behar dutela Atzerritarren Legea bezalako lege klasista eta arrazisten ondorioz lanerako eta duintasunerako eskubiderik ez duten pertsonen? Nola bizi daiteke 500 eurotik beherako gelarik lortzen ez den hiri batean?

Noiz arduratuko da Udala pertsonen gizarte-babesa emateaz?

Udal honek ingurura begiratu beharko luke, eta ikusi, adibidez, **Gasteizko Udalak milio bat Euroko inbertsioaz Bidelan jantoki-zerbitzua inauguratu berri duela, 60 plazarekin bi txandatan**, hau da, 120 bazkari eta 120 afarirekin eta berrikuntza gisa gehitu ditu eramateko gosariak. Gune horretan bertan gizarteratzeko eta laneratzeko ikastaroak ere eskainiko dituzte, profesionaltasun-ziurtagiri gisa egiaztatzeko araudia betetzen dutenak. Donostiako Udalaren iritziz, ordea, ezarritako gizarte- eta harrera-politikak nahikoak baino gehiago dira; izan ere, irabazi ekonomikoak lortzen diren arloa ez denez, ezin da eskatu gastua handitzea. **Gizarte Zerbitzuen Zorrak** Udalek herritarrei eskaintzen dizkieten gutxieneko zerbitzu eta prestazio batzuk ezartzen ditu eta **zerbitzu eta prestazio horiek hobetu egin daitezke beren eskumenen barruan**. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gastua handitzeak ongizate kolektiboa handitzea eta gizarte-bazterkerian dauden pertsonen gizarteratzea eta integratzea dakar.

Hala ere, Donostiako Udalaren aldetik ikusten dugun neurri bakarra kalea eta infraetxeak okupatzen dituzten pertsonen eta pertsona horien prozesuetan laguntzen duten kideei egiten zaien **presio politziala neurritz kanpo handitzea izan da**. Ohikoa da hiriko edozein espaloitatik lauzpabost Udaltzain edo Ertzaintza ikustea, gutxienez bi ibilgailu dituztelarik, esku-hartzerik sinpleena egiten, ohiko identifikazioa prebentiboa.. Prebentziozko esku-hartze aporafobiko eta arrazista horiei, azkenaldian, indarkeriazko etxegabeteak, abusu fisiko eta emozionalak, etengabeko miaketak, intimitatearen urraketa, ondasun baliotsuak desjabetzea, agintearen aurkako atentatuen salaketa susmagarriak... gehitu behar zaizkie. **Adibide gisa, duela bi hilabete inguru Kaleko Afari Solidarioak ekimenean laguntzen duen boluntarioetako bat salatu zuen Udaltzain baten kasua dugu grabatuta**. Udaltzainak fisikoki gure kidea erasotu eta gero, lotan zegoen tokitik indarrez atera eta Udaltzainaren aurkako atentatu batengatik akusatu dute. Pertsona honek, beste askok bezala, ahal duen guztia egiten du bizitza duina eraman eta etorkizunean aukerak lortu ahal izateko eta Udal honen erantzuna kriminalizazioa eta egoera hobetzeko bide guztiak oztopotzea da. **Udalari salaketa hau lehenbailehen kendu dezan eskatu nahi diogu**.

Testu honetan laburtzen dugun horregatik guztiagatik, **KAS eta Hiritarron Harrera Sarea taldeek beste behin ere dei egin nahi diegu Donostiako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, babesik ez duten pertsonentzako baliabideetan diru gehiago inbertitu dezatela** eskatuz, gizarte osoarentzako inbertsioa baitira. Azpimarratu nahi dugu egoera honetan bizi diren pertsonak ahalik eta modu okerrean tratatzeak ez duela beraiek alde egitea eragingo, baizik eta **politika horiek segurtasun-gabeziako egoerak are gehiago larriagotzea eta gizarte gisa lotsagarri uztea lortzen dute**.

**KONPONBIDE INTEGRALAK ORAIN!
GIZARTE-POLITIKETAKO MURRIZKETAK GELDITU!
POLITIKA APORAFOBICA ETA KRIMINALIZATZAILEEI EZ!**



Mediante este comunicado nos gustaría dar a conocer y denunciar que en la ciudad del pintxo, de 8 restaurantes estrellas Michelin y del Basque Culinary Center, hay **más de 300 personas que viven en situación de pobreza y exclusión extrema**. Estas personas sobreviven en la calle o con suerte habitan infraviviendas sin luz ni agua, muchas veces sin posibilidad de higiene y con grandes dificultades para acceder a la salud física, psicológica y emocional.

Desde hace más de 3 años sin embargo, **lxs voluntarixs de Kaleko Afari Solidarioak (KAS) repartimos más de 200 cenas calientes todos los días del año en tres puntos de la ciudad** y este trabajo se hace gracias al esfuerzo, dinero y solidaridad de ciudadanxs anónimxs que ya **en varias ocasiones hemos sido grabadxs por la policía cuando hacemos nuestra labor**. Muchas veces estas cenas no llegan para todxs. Estamos muy preocupadxs por el aumento de personas que vienen a los tres puntos y tristemente vemos como a veces es la única comida del día porque no hay apenas servicios públicos ni para desayunar ni para comer y los recursos no municipales que existían han cesado su actividad o están cerrados indefinidamente. Señor alcalde, en Donosti no sólo cuesta salir de pintxos, también cuesta sobrevivir con una cena diaria.

Desde los colectivos KAS e Hiritarron Harrera Sarea queremos denunciar los escasos recursos que ofrece el ayuntamiento a estas personas:

- Dentro del capítulo de las prestaciones de alimentación que tiene el Ayuntamiento de Donostia está "Otorduak" -un vale para que las personas puedan comer en bares de la ciudad-, **con capacidad de 65 plazas y una lista de espera de más de 200 personas**. Un servicio a todas luces exclusivo e insuficiente.
- Sabemos también que para poder tener un mínimo higiene, algunas personas **alcanzan a un ticket para poder ducharse una vez a la semana y poder poner una lavadora una vez al mes**, pero la demanda es tan grande, que a mitad de semana ya se han terminado todos.
- El albergue municipal ofrece **cinco noches cada tres meses**, está siempre completo y para entrar muchas veces hay que dormir fuera toda la noche hasta conseguir un sitio a la mañana.
- **El servicio municipal de urgencia (SMUS)** que entre otras cosas es donde hay que ir para poder empadronarte, **está totalmente desbordado**, hay mucha gente esperando fuera, es complicado acceder a una cita, cuando se consigue apenas atienden por 15 minutos y ha ido recortando y eliminando los pocos recursos que daba como es el apoyo para conseguir documentación, necesaria a su vez para conseguir el empadronamiento.

Aunque la mayoría de personas que se encuentran en esta situación de desprotección son jóvenes migrados desde el norte de África, que viven en total inseguridad sin tener garantizada ni siquiera una sola comida diaria, queremos enfatizar que **cada vez son más personas las que se ven obligadas a pernoctar en la calle, entre ellas también mujeres y familias totalmente abandonadas a su suerte**, a las cuales tampoco el SMUS ofrece ninguna cobertura.

¿Como se supone que deben sobrevivir personas que a causa de leyes clasistas y racistas como es la Ley de Extranjería no tienen derecho al trabajo ni a la dignidad? ¿Como se puede vivir en una ciudad donde no se consiguen habitaciones por menos de 500 Euros?

¿Cuándo se responsabilizará el Ayuntamiento de dar cobertura social a las personas?

Este Ayuntamiento debiera mirar a su alrededor y ver que por ejemplo **el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz acaba de inaugurar el servicio de comedor Bidelan con 60 plazas en dos turnos**, es decir 120 comidas y 120 cenas y añade, como novedad, los desayunos para llevar y los cursos de inserción sociolaboral que se ofertarán en este mismo espacio y que cumplen la normativa para acreditarlos como certificados de profesionalidad con una inversión de un millón de euros. En opinión del ayuntamiento Donostiarra, sin embargo, las políticas sociales y de acogida implementadas son más que suficientes ya que al no ser un área del que se obtengan beneficios económicos no se puede pedir que incrementen el gasto. **La Cartera de Servicios Sociales** establece unos mínimos servicios y prestaciones que ofertan los ayuntamientos a sus ciudadanxs **pudiendo mejorarla dentro de sus competencias**. Incrementar el gasto en servicios sociales básicos, supone un aumento del bienestar colectivo y una integración social y personal de las personas en exclusión social.

Sin embargo, la única medida que vemos por parte del consistorio donostiarra es un **aumento desmedido de la presión policial** que se está ejerciendo sobre las personas que ocupan calle e infraviviendas y sobre las personas que acompañamos sus procesos. Es común ver por cualquier acera de la ciudad de cuatro a seis agentes municipales o de la Ertzaintza, sumados de dos vehículos como mínimo, en la más simple de las intervenciones que es una identificación rutinaria y "preventiva". A esas intervenciones preventivas aporafóbicas y racistas, en los últimos tiempos se les suman desalojos violentos, abusos físicos y emocionales, cacheos constantes, violación de intimidad, expropiación de pertenencias valiosas, acusaciones falsas de atentado contra la autoridad.... **Como ejemplo está el caso grabado de un agente de la policía municipal que hace aproximadamente dos meses agredió físicamente y después denunció a uno de los voluntarios que ayuda en Kaleko Afari Solidarioak**. Después de agredirle físicamente, lo saco a la fuerza del lugar donde dormía y todo terminó en una acusación de atentado contra la autoridad. Esta persona, como muchas otras, hace lo imposible para aun no teniendo muchos de los derechos sociales llevar una vida digna y trabajar para en un futuro poder tener oportunidades y la respuesta de este ayuntamiento es la criminalización y la obstaculización de toda vía para mejorar su situación. **Queremos pedir que se retire la denuncia contra nuestro compañero cuanto antes**.

Por todo lo resumido en la anteriores líneas, **los grupos KAS y Hiritarron Harrera Sarea queremos apelar una vez más al ayuntamiento y a la Diputación de Gipuzkoa y pedir que inviertan más dinero en recursos para las personas más desamparadas** que a su vez son una inversión para la sociedad en su conjunto. Queremos recalcar que tratar a las personas que viven en esta situación de la peor forma posible no va a hacer que se marchen, estas políticas **lo que consiguen es agravar las situaciones de inseguridad y dejarnos avergonzadas como sociedad**.

**SOLUCIONES INTEGRALES YA!
BASTA DE RECORTES EN POLÍTICAS SOCIALES!
NO A LAS POLÍTICAS APORAFÓBICAS DE CRIMINALIZACIÓN!**